

## **Andoaingo Udalak 10.000 eurorainoko bost laguntza-lerro jarri ditu martxan udalerriko negozio eta enpresa txikientzat**

**Andoainen, 24-07-24.-** Andoaingo Udaleko Ekonomia Sustapen, Enplegu eta Gazteria Sailak tokiko enplegua, kontsumoa eta ekonomia sustatzeko laguntza ekonomikoen programa bat jarri du abian, eta, aldi berean, udalerriko ekintzaileei, negozioei eta enpresa txikiei lagundu die modernizatzen eta finkatzen. Deialdi honen erroa aurtengo aurrekontuetarako EHBilduko udal gobernuak eta EAJ-PNVko udal taldeak lortutako akordioa dago. Horren baitan adostu da laguntzen gutxieneko zenbatekoa 1.250 eurokoa izatea, eta 10.000 eurora ere iristeko aukera, eskatutako lerroen arabera. Guztira 150.000 euro bideratuko dira ekimen honetara.

Laguntza horiek udalerriko garapen sozioekonomikoko estrategia baten barruan daude, eta estrategia horrek bi ardatz ditu:

- Trantsizio digital eta ekologikoaren, inklusio eta lurralde-kohesioaren alde lan egitea, eta eragin soziala duen hazkunde iraunkorra bilatzea;
- Lurraldearekin, herritarrekin, sare sozioekonomikoarekin, beste eragile sozial batzuekin eta gainerako administrazio publikoekin lankidetzan.

Hala, bost laguntza-lerro egongo dira indarrean, desberdinak eta elkarren osagarriak. Lehenengoa, Andoaingo bizilagunak kontratatzekeo laguntzak, helbide soziala eta fiskala Gipuzkoan duten enpresentzat da. Zenbatekoa kontratatzen den pertsonaren eta enpresa kontratatzailearen ezaugarrien arabera mailakatuko da, 1.500 eta 3.900 euro artekoa.

Bigarren lerroaren bidez, negozio berriak sortzeko eta gure udalerrian daudenak transmititzeko eta/edo jarraitzeko dirulaguntzak ematen dira. Kasu horretan ere zenbatekoa graduatu egingo da, 1.250 eta 1.950 euro artekoa.

Hirugarrenik, hutsik dauden merkataritza-lokalak zero kotan eta lanerako espazioak okupatzea sustatzen da Martin Ugalde Kultur Parkeko coworking-ean, alokairuko lehen urteko kostuak diruz lagunduta, 1.118 eurotik 5.100 eurora bitarteko zenbateko mailakatuan.

Laugarren laguntza-lerro batek gure udalerriko negozioei eta enpresa txikiei lagundu nahi die iragaite digital eta ekologikoan. Horrela, inbertsioak diruz laguntzen dira softwarean, online merkataritzan eta marketin digitalean, prestakuntzan eta aholkularitza teknologikoan, klimatizazioan, argiztapenean eta ekonomia zirkularrean. Berriz ere zenbateko graduatuak, enpresen ezaugarrien eta egindako inbertsioen arabera, 1.250 eta 1.850 euro artekoak.

Azken lineak merkataritza-lokaletan inbertsioak egitea diruz laguntzen du, bertan kokatutako negozioen irisgarritasunaren eta lagunkoitasunaren alde. Kasu horretan, laguntzaren gehieneko zenbatekoa 1.700 eurokoa izango da.

Informazio gehiago Atarian (Herritarrentzako Arreta Zerbitzua), udalaren web orrian eta zuzenean udal sailarekin harremanetan jarriz (tokigarapena@andoain.eus helbide elektronikoan eta 943304221 telefonoan).

